



Gela irekia

Antzoki ilunean zehar

Amaia Espinosa eta Jose Inazio Arrizabalaga

Lantxo honen bitartez “Antzoki iluna” saioez osatu diren entzungai eta irakurgaiak lantzeko, baita gozatzeko ere, aukera batzuk eskaintzea litzateke gure asmoa. Goi-urratsetako ikasleei zuzendua da, euskalduntze-prozesuan ikasitakoak sakontzeko eta hizkuntza jatortasun, bizitasun eta arintasunez jazten duten hizkuntz forma, molde eta egituren alorra ulertzeko.

Ariketak asko izan daitezke eta aukera zabala. Guk, dena dela, hiru bide zabaldu nahi genituzke. Gero bakoitzak erabakiko du unean-unean zein den egokiena. Atal bakoitza istorio konkretu batean oinarrituta egon arren, bakoitzaren esku geratzen da antzeko ariketa eta zereginak istorio berrietara egokitzea.

Errugabeko txoriak'
Helburuak

- Testua ulertzeko gaitasuna izatea: hizkuntzaren izaera, lotura eta bihurtze asko atzeman eta ulertzeko gauza izatea.
- Jatorrizko hitzaren solasaldiak ulertzeko gai izatea.
- Gai edo egoera guztiei dagokien informazioa egoki adierazten trebatzea.
- Koherentzia lantzea.

Materiala

Lau kasete (eta lau bat taldek entzuteko leku egokia).

Prozedura

- a. 12 ikasle, 3nako 4 taldetan (**A-B-C-D**) banaturik. Talde bakoitzak istorioaren atal bat irakurriko du. Aldez aurretik atal bakoitzean

zenbait esaldi (esakera, modismo edota landu nahi den egituraren bat) azpimarratu eta istorioaren harian esanguratsuak diren parrafo edo parrafo-zatiak kenduko dira. (Ikus .1) (Iraupena: 30')

- b. Talde bakoitzak orriak alde batera utzi eta irakurritako zatia bera entzun egingo du. (Iraupena: 15')
- c. Taldeetatik ikasle bana hartuz, **A1, B1, C1, D1; A2, B2, C2, D2** eta **A3, B3, C3, D3** taldeak osatuko dira. Talde hauetako partaide bakoitzak berak entzundako atala kontatuko du, testuan azpimarratutako esaldiak erabiltzen ahaleginduz. Era honetan, talde bakoitzak istorioa ahoz berrosatuko du. (Iraupena: 45')
- d. Bi orduko saioa osatzeko geratzen den orduerdia, azkenik, ondorioak atera eta ariketaren feedbacka egiteko erabil daiteke.

-
- .1 MARIA – Beti liburuekin... Tira, eser zaitezte.
- LUZIA – Zer gertatzen da, ama? Oso pattal ikusten zaitut!
- MARIA – Hara. Hobe da *hinki-hankarik gabe esatea*: miseria gorrian gaude; ez daukagu bizibiderik!
- KONTALARIA Luzia eta Nikolas *aho bete hezur gelditu ziren*, ezer esateko gauza ez zirela.
- MARIA – Lehengoan bankuko gizon bat etorri zitzaidan. Antza denez, aitak diru asko galdu zuen negoziotan eta...
- LUZIA Negoziotan?!
- KONTALARIA Amak ezkutatu egin nahi zien diru-galtze haren arrazoiak; ez zuen nahi senar zenaren oroimenak bere seme-alaben estimazioa gal zezan. Baina Luziak azkar igerri zion egia.
- LUZIA – Negoziio ederrak aitarenak!
Nikolas oso aita-zuloa izana zen, eta haserretu egin zen arrebaren hitzek aditzera ematen zuten mespretxuarekin.
- NIKOLAS – Zer esan nahi dun, Luzia?
- LUZIA – Aitak diru asko galdu zuela, baina ez negoziotan. Ez da hala, ama? •
Amak burua makurtu zuen.
- MARIA –
- LUZIA – Jakina baietz! Non bestela? Frontoitik ez zen irteten eta!?
- KONTALARIA Isiltasuna egin zen berriro. Amak leihoaz haruntzagoko mendiei begiratzen zien; Luziak ezpainak zimurtzen zituen; Nikolas pentsamendu sakonetan murgilduta zebilen.
- NIKOLAS – Dena dela, berdin dio. *Miseria gorrian gaude*, orduan?
- MARIA – Bai.
- LUZIA – Eta zer egingo dugu orain?

- MARIA – Horregatik deitu dizuet, erabaki bat hartu dudalako; ea zer iruditzen zaizuen.
- NIKOLAS – Neri ondo irudituko zait, ama.
- KONTALARIA Amak bere semeari begiratu zion. Hemezortzi urte zituen arren, haur txiki bat bezain gozoa eta atsegina zen. Oso maitagarria egiten zitzaion.
- LUZIA – Zer pentsatu duzu, ama? Etxe hau saltzea?
- MARIA
- KONTALARIA Egitasmo hura onartzea *aldapa gora egin zitzaien denei*. Baina, jendeak esaten duen bezala, *beharra bezalako lagunik ez dago*, eta Maria Sagastik berria adierazi zien bere seme-alabei.
- MARIA – Herriko medikuak bi gela eskatu dizkit. Zer iruditzen zaizue?
- LUZIA – Ondo; baina ez dugu mahai berean jango, ezta?
- MARIA – Guk ez badugu nahi, ez!
- LUZIA – Nik ez dut nahi, behintzat.
- NIKOLAS – Eta medikuak ordainduko duenarekin bizi al gintezke?

Antzoki Iluna: "Errugabeko txoriak ere erortzen dira sarean" (12-13 orr.)

Pelotaria²

Helburuak

- Hizkera kolokiala ulertzeko gai izatea.
- Nahiz eta oraindik ere hiztegiaren beharra izan eta erredakzio-lanak jatorrizko hitzunek baino motelago idatzi, jakineko informazioaren hariari jarraituz egokitasunez burutzeko gai izatea.
- Ikasleak ebakera, azentua eta intonazioa lantzea.

Materiala

Kasete bakarra eta liburuskaren kopiak.

Prozedura

- a. Lexiko eta sintasi aldetik egon daitezkeen zalantzak argitu ondoren, istorioaren lehen atala entzuteari ekingo diogu. Zati honen helburua, talde osoak batera egitekoa, entzundakoa ulertzea baino ez da. (Iraupena: 25')
- b. Klasea talde bitan banatuko dugu eta bakoitzari bigarren atalaren kopiak emango dizkiogu. Kopia hauetan, bukaerako zatia kendu, lagungarri izan daitezkeen zenbait parrafo utziz (ariketa gehiegi ez zailtzearren), eta idatziz osa dezaten-eskatuko zaie. (Ikus .2) (Iraupena: 50')
- c. Talde bakoitzak berak egindakoa antzestu beharko du irakurriz. (Iraupena: 15')
- d. Benetako bukaera entzun eta ondorioak atera. (Iraupena: 30')

- .2 Jarraian dituzun parrafoak eta pertsonaiak lagungarritzat hartu eta buru eza-
zu istorioa antzerki-gidoi edo elkarrizketa eran.

Pertsonaiak

- Jazinto
- Txikerra
- Kontalaria
- Irratikoa
- Julian
- Gabiria

Parrafoak

IRRATIKOA – Jaun-andreok! Jaun-andreok! Julian gaztearen tantoa! Hogeitabatna! Hogeitabatna! Partidua motel zetorren, baina azken momentu hauek bihotza lehertzeko modukoak dira! Sakea Julianentzat! Azkeneko sakea, txapelketa erabakiko duena! (21. or.)

...

TXIKERRA – Ez duk ausartuko azkeneko tantoan sakean falta egitera! (21. or.)

...

IRRATIKOA – Julian gaztea sakatzen! Hor doa pilota, oso azpitik, txapa gain-gainetik... (22. or.)

KONTALARIA Txikerrak pilota baino ez zuen ikusten. Txapa ia-ia ikutuz gainditu ondoren, zitzu bizian zetorren pilota hura, baina bost zentimetrogatik falta izango zen! Txikerra korrika txikian hasi zen. (22. or.)

...

TXIKERRA – Bai. Bai. Hau sufrimendua, Jazinto! Hau sufrimendua! (23. or.)

...

Antzoki Iluna: "Pelotari zaharraren ajeak"

Amaren maitasuna³ Helburuak

- a. Hizkuntzari jatortasuna, bizitasuna eta arintasuna ematen dioten hizkuntz forma, molde eta egituren alorra lantzea.
- b. Era berean, testu bera ardatza dugularik, mintzamina, idazmina, irakurmina zein entzumena jorratzea.

Dena den, helburu nagusia aurreko urratsetan landutakoa modu atseginean birpasatzea, sakontzea eta, bide batez, neurtzea izango litzateke.

Jakina, hemen proposatutako ariketak antzeko ezaugarriak dituen beste testuren baterako ere egoki daitezke.

- Ariketak a. *helburua lantzeko ariketak*

1 Egiturak lantzen (.3)

Testua (kasu honetan istorioaren lehenengo atala) entzun-irakurri ondoren egitekoa da. Orri batean eman testuan azaltzen diren zenbait esaldi egitura berezia dutenak (landu nahi direnak) eta haiek bereganatu ondoren:

- egitura bera duten bi esaldititik zuzena aukeratzea;
- azpimarratutakoa aldatuz, esaldiak berridaztea;
- egitura berak erabiliz, esaldi berriak eginaraztea.

.3 Egiturak

- 1 Mundua *mementurik mementu* aldatuz joan den arren ...
- 2 (Herriak) *ordu-laurdeneko bidean* zeuden orain.
- 3 Trena lehenengoz *ikusi zuen hartan*.
- 4 Lana galtzera *zihozenak ez ezik, beste asko ere* aurka jarri zitzaizkion trenaren etorrerari.
- 5 Sarriako nagusiak ez dik *bere probetxua besterik* bilatu nahi izan.
- 6 Ezkontza *ona egin izana* beste meriturik ez dik Albertok!
- 7 *Ume txikiak urtuzetik* ateratzen zuten gurpiletarako koipea.
- 8 ... *nola pobreak defenditzerik ez daukan!*
- 9 *Morro*i egon da.
- 10 Trenaren biribilketa eta hotsak *zer esan ugari eman bide (omen) zuten*.

Egiturak lantzen

Zuzena aukeratu

- 1 Gelatik gela ibili dira firmak batzen.
Gelarik gela ibili dira firmak batzen.
- 2 Hiru ordutako bidean ez dago iturririk.
Hiru orduko bidean ez dago iturririk.
- 3 Avilara joan ginenean hartan ez genuen kanpinik eraman.
Avilara joan ginen hartan ez genuen kanpinik eraman.
- 4 Gazteak ezik, jende heldua ere ikusi nuen manifestazioan.
Gazteak ez ezik, jende heldua ere ikusi nuen manifestazioan.
- 5 Ugazaba honek ez du bakarrik bere probetxua bilatzen (más que beneficio propio).
Ugazaba honek ez du bere probetxua besterik bilatzen.
- 6 Magisteritza-karrera eginda izana beste meriturik ez du horrek (el haber hecho).
Magisteritza-karrera egin izana beste meriturik ez du horrek.
- 7 Makina txanponjaleak salduzetik aberastu da.
Makina txanponjaleak saltzetik aberastu da.
- 8 Nola bihar etortzea ez daukan gaur egin du.
Nola bihar etortzerik ez daukan gaur egin du.

- 9 Zuzendari bezala egon zen. (Estuvo de director.)
Zuzendari egon zen.
- 10 Zure iritziek zer esana ugari eman zuten omen.
Zure iritziek zer esana ugari eman omen zuten.
-

2 *Esakerak/espresioak (.4)*

Testu beretik ateratako zenbait esakera eta espresio jator eman eta:

- esakera edo espresio bakoitza antzeko esanahia duen esaldiarekin lotu;
- kontestua azalduta, antzeko beste esakera edo espresio bat ematea.

b. *helburua lantzeko ariketak*

1 *Entzumena.*– Aukera anitzeko galderak (istorioaren 1. atala). (.5)

2 *Idazmena*

- Testutik ateratako esaldi bat emanda (idazmen gidatua), *eskutitza* landuko dugu. Esate baterako:

“Lana galtzera zihoazenak ez ezik, beste asko ere aurka jarri zitzaizkion trenaren etorrerari”. Zeu zara horietako bat. Kontakizunean adierazten denari kontu egin eta idatziozu gutun bat herriko mandatariari zeure kezka eta buruhaustearen berri emanez.

- *Azalpena* lantzen. Adibidez:

Kazetaria zara. Ahalegin zaitetz herriko giroa eta auzokoen ardurak laburbiltzen.

- *Deskribapena* landu (istorioaren 2. atala). (.6)

- Pertsonaien ezaugarriak zerrendatu.
- Ezagutzen duzun baten ezaugarriak aurrekoarekin parekatu.
- Ezagutzen duzun horren deskribapena egin.

.4 **Esakerak-espresioak**

Zenbaki bakoitza letra batekin erlazionatu

- | | |
|--|--|
| 1 <i>Eguna joan, eguna etorri.</i> | A Eta nora hoa bada? |
| 2 <i>Zer berri? Zaharrak berri.</i> | B Ez pentsa, ordea, astoaz ari denik. |
| 3 <i>Beti-betikoan gaude.</i> | C Maitasunik ez dakit, baina dirurik ez du falta izango. |
| 4 <i>Perra berriyak erantsi dizte.</i> | D Beti-betikoan gaude. |
| 5 <i>Gorputzak bapo gobernatuaz.</i> | E Orain ere aitaponteko onak ate asko zabaldu ohi du. |

- | | | | |
|----|---|---|---|
| 6 | <i>Idi-pareari esker bizi izan direnek zer egin behar ditek?</i> | F | Oilo halakoa! |
| 7 | <i>Zer ari gara hemen lehorrean?</i> | G | Haserre zaude ala? |
| 8 | <i>Berarekin ezkondu eta ttaka! Aberats bihurtu goizetik gauera.</i> | H | Bai, gurean ez dago nobedaderik. |
| 9 | <i>Nik esaten diat esku luzea behar dela tren zihuan bidetik apartatu eta honantza ekartzeko!</i> | I | Egia esan, ez dute larrosa koloreko etorkizuna. |
| 10 | <i>Hire atsoak dauzkan beso-zuztar horiekin gutxi fidatu!</i> | J | Baina zirt edo zart egin beharko dugu. |
| 11 | <i>Ni ere hanka egitera niek!</i> | K | Bai, egia da. Nik zerbeza bat edango nuke. |
| 12 | <i>Hara beste beldurti zikina!</i> | L | Kontuz horrekin! |
| 13 | <i>Zergatik daukazue hain bekoki beltzak?</i> | M | Edanian da janian. |
-

- .5
- 1 Kontalariaren ustez, 1814an hasi zen modernitatea. Zergatik?
 - a. Urte horretan ikusi zuelako lehenengo tren Espainia partean.
 - b. Mundua aldatzen zihoala konturatu zelako.
 - c. Meatzari batek lokomotora asmatu zuelako.
 - d. Trenbideen inguruan estazioak, hotelak eta fabrikak sortu zirelako.
 - 2 Non gertatu zen hemen adierazten den istorioa?
 - a. Hernanin edo Tolosan.
 - b. Liverpoolen.
 - c. Zumarraga inguruan.
 - d. Ez da aipatzen.
 - 3 Hasieran jendeak susmo txarra hartu zion trenari. Zer dela eta?
 - a. Beren lurretatik pasatzen zelako.
 - b. Oso garestia zelako.
 - c. Asko lanik gabe geratuko zelako.
 - d. Arriskutsua zelako beren ustez.
 - 4 Ostatuan salda hartzen ari ziren gizonezkoek zertarako deitu zioten etxeoandreak?
 - a. Kontua ordaintzeko.
 - b. Jan-edan gehiago eskatzeko.
 - c. Trenari buruz zuten iritzia kontatzeko.
 - d. Euretako bat mutilzaharra zela esateko.
 - 5 Herritarrek Sarriako Alberto jotzen zuten trenaren etorreraren errudun. Zein arrazoirengatik?

- a. Sail asko saldu eta dirutza handia eskuratu zuelako.
 - b. Neskazahar dirudun batekin ezkondu zelako.
 - c. Ezertarako balio ez zuten lurrak Tren Konpainiari erregalatu zizkiolako.
 - d. Liberala ez zelako.
6. Zertarako lapurtzen zituzten umeak?
- a. Trenaren gurpiletara botatzeko.
 - b. Trenari koipea kentzeko.
 - c. Kalderetan sartu eta urtzeko.
 - d. Saldu eta koipea erosteko.
7. Noiz iritsiko da trenea herrira?
- a. Lau egun barru.
 - b. Orain lau egun jarri zen martxan.
 - c. Jendea lasaitzen denean.
 - d. Trenarentzako koipea biltzen dutenean.
-

6 • **Ezaugarriak zerrendatu**

Alberto	Zuk esagutzen duzuna
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-
-	-

• **Zuk ezagutzen duzunaren deskribapena egin**

3 *Mintzamena*

- Testuan agertu diren zenbait kontzeptu, ideia edo pasarte mintzagai erabili. Lehenengo ataleko adibideak:
 - Trena
 - * Noiz ikusi zenuen lehenengo aldiz.
 - * Trenez egin zenuen lehenengo bidaia.
 - * Trenaren abantailak eta desabantailak.
 - Aurrerakuntzak
 - * Zein da zuk ezagutzen duzun garrantzitsuena.
 - * Ondorioak: irabazi ekonomikoak, erosotasunak, langabezia, bir-moldaketak...
 - Auzokoen arteko gorroto eta ezinikusiak
- Rolak banatu eta istorioa kontarazi.

Oharrak

1 “Errugabeko txoriak ere erortzen dira sarean” (4 atal). (*Antzoki iluna*. Donostia: HABE.)

2 “Pelotari zaharraren ajeak” (2 atal). (*Antzoki Iluna*. Donostia: HABE.)

3 “Amaren maitasuna bezalakorik ez duzu inon aurkituko” (8 atal). (*Antzoki Iluna*. Donostia: HABE.)